

Testua: **MON DAPORTA**
 Ilustrazioak: **ÓSCAR VILLÁN**
 Itzulpena: **MANU LÓPEZ GASENI**

Kartoi gogorra. 14 orrialde koloretan. 17,5x22 cm.

Honako hizkuntza hauetan eskuragarria:

- Euskera: "Piztia arraro bat"
 Faktoría K-Pamiela. ISBN 978-84-7681-611-0
- Gaztelania: "Un bicho extraño"
 ISBN 978-84-96957-67-1
- Gailegoa: "Un becho estraño"
 ISBN 978-84-96957-66-4
- Portugesa: "Um bicho estranho"
 ISBN 978-989-8205-16-2
- Katalana: "Una estranya bestiola"
 Faktoría K-Hipòtesi. ISBN 978-84-937469-4-0

Salneurria: 12 €

PIZTIA ARRARO BAT

**Begira eta begira, zokomiran,
 piztia arraro bat topatu nuen,
 arrautzaren itxurakoa:
 Gizena goian, behean flakua.
 Goiko aldean bi oin
 Oinen artean, isats luze estua...**

"Amaierarik gabeko ipuinen" formularen bidetik datorkigun formatu txikiko liburua. Kontatzeko ipuin honetan funtsezkoak dira errima eta erritmoa, kontakizun osoan zehar errepikatzen diren egitura erritmokoetan oinarrituta. Alderdi literario zein artistikotik darion xalotasunarekin batera, liburu honek irakurle txikiekin ematen duen "jokoa" ere azpimarratu behar da, irakurtzearen funtzio ludikoa ezin hobeto erakusten baitu. Izan ere, orrialdeetan aurrera amaierara iritsita, liburuari buelta eman eta...

MON DAPORTA (Cambados, 1952)

Irakasle aritu da azken hogeita hamar urteotan eta gaur egun Lehen Hezkuntzako irakasle dihardu San Tomé de Cambados (Pontevedra) LHIn. Hezitzaileak prestatzeko ikastaroak eta jarduerak antolatzen dituen Candea izeneko talde pedagogikoko kide da. Haurrentzako liburu batzuk argitaratu ditu eta liburu monografikoak zein entziklopedia tematikoak prestatzen lagundu du.

ÓSCAR VILLÁN (Ourense, 1972)

Arte Ederretan lizentziatua, margolaritza berezitasunean. KALANDRAKAK argitaratutako "El pequeño conejo blanco" haurrentzat ilustratu zuen lehen lanarekin, 1999ko Ilustrazioko 1. Sari Nazionala eskuratu zuen. Hurrengo urtean, obra hori Venezuelako Liburu Bankuak "Haurrentzako liburu onenak" zerrendan sartu zuen. Gainera, album hori "Makaniños" bildumako piktograma-hizkerara egokituta dago. Beste titulu batzuk ilustratu ditu -KALANDRAKAn besteak beste-, hala nola "La cebra Camila", "La mora", "El Rey Oso Blanco" eta "De la cuna a la luna" aurre irakurleentzako bilduma. 'Alfabetos' izeneko arte bildumaren zuzendaria da.



- **Gaiak:** hasiera batean ezezaguna den animalia bati buruzko ipuin errimatua
- **Gomendatutako adina:** 3 urtetik aurrera
- **Alderdi azpimarragarriak:** amaierarik gabeko ipuina; liburuari buelta emanez, ipuina berriro hasten da; testu errimatua; hondo ilunarekin kontrastean dauden ilustrazio xaloak; ilustrazioan integraturiko tipografia